

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **398/2021 Foru Agindua, urriaren 25ekoa, Administrazio Batzarretako kideak hautatzeko 2021ko azaroaren 21an egin behar diren bozketak egiteko jarraibideak**

Arabako lurralde historikoko kontzejuetako administrazio batzarretako kideak eta erregidoreak hautatzeko prozesuak dituen berezitasunak direla eta, hauteskunde horien oinarriko hainbat gai arautzea komeni da. Dena dela, ordezeko moduan udal hauteskundeetarako indarrean dagoen araudia erabiliko da.

Horregatik guztiagatik, arau zehatzak xedatuko dira publizitate, hauteskunde mahai, bozketa eta zenbaketaren inguruan.

Horregatik, Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 528/2021, erabakiak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

##### **Lehenengoa. Hautagai-zerrendak jendaurrean jartzea**

1984ko uztailaren 30eko Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejido-reak eta Kideak Hautatzekoak, 9. eta 11. artikuluetan aipatzen dituen hautagai zerrenda ordenatuak ALHAOn argitaratu ondoren, horiek jendaurrean ipini beharko dira erakundearen iragarki taulan edo ohiko lekuan, baita bere udalerriko udalaren iragarki taulan ere, hauteskundeak egiten diren egunera arte.

##### **Bigarrena. Hauteskunde mahaiak**

Foru Arau beraren 12. artikuluari jarraituz, hauteskunde mahaiak agintaldia bukatu duten administrazio batzarretako erregidoreek eta kideek osatuko dute, batzarretako idazkariak lagunduta.

Erregidorea gaixorik, kanpoan edo aldi baterako ezindurik badago edo hauteskundeetan aurkezten bada, administrazio batzarreko kiderik zaharrenak ordeztuko du. Kide bat edo batzuek aurretik adierazi diren egoeretakoren batean gertatuz gero, 2017an egindako hauteskundeetan lortutako boto kopuruaren hurrenkeraren arabera ondoren datozen pertsonak ordeztuko dituzte mahaietan. Ordezpena adierazitako moduan egin ezin izatekotan, Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak izendatuko du ordezekoa zozketa bidez.

##### **Hirugarrena. Bozketa**

a. Bozketarako ezarritako egunean, zortziak eta berrogeita bost minutuan, kontzeju aretoan edo batzarren ohiko bilera tokian bilduko dira batzarra osatzen duten kideak, batzarretako idazkariaren lagunduta, eta Foru Agindu honetako bigarren idatz zatian aurreikusitako moduan eratuko dute mahaiak.

b. Bozketa bederatzietan hasiko eta arratsaldeko hirurak arte jarraituko du, etenik gabe. Hala ere, Hauteskunde Batzordeak, Administrazio Batzarreko lehendakariaren proposamenez, bozketa ordutegia luzatu ahal izango du, hautesleen kopuru handia edo neurri hori hartzea gomendatzen duen beste edozein egoera kontuan hartuta.

c. Ezinbesteko arrazoiengatik baino ezin izango da bozketa hasi gabe edo –behin hasita gero– bertan behera utzi, eta beti ere mahaiburuaren erantzukizunaren pean, berak erabaki beharko

baitu idazki arrazoitu baten bidez. Beti ere mahaiburuak, idazki hori egin eta berehala, horren kopia ziurtatua helarazi beharko dio lurralde historiko honetako Hauteskunde Batzordeari, dela eskura, dela posta ziurtatu bidez, batzorde horrek arrazoiak egiazkoak eta nahiko direla egiazta dezan eta bidezko diren erantzukizunak aitortu edo eska ditzan.

Bozketa bertan behera utziz gero, mahaian emandako botoak ez dira kontuan hartuko, ez eta horien kontaktari ekin ere. Mahaiburuak berehalakoan aginduko du hautestontzian sartutako boto txartelak suntsitzeko, eta aurreko paragrafoan adierazi den idazkian jasoko du egitate hori, bai eta horretara eraman duten arrazoiak ere.

d. Administrazio batzarrerako hautatu beharreko kide adina hautagai edo hautatu beharreko kideak baino hautagai gehiago izanda, hautagai zerrendak inprimaturik dauzkan boto txartela (EC.2 eredukoa) erabiltzen den erakundeetan, hautesleek markatu beharko dituzte botoa eman nahi dieten hautagaiak, hauei dagokien laukian gurutze bat eginez. Hautesle bakoitzak, gehienez ere, batzarrerako hautatu beharreko kideak ken bat adina hautagairi eman ahal izango die botoa.

Botoa emateko hautagai zerrenda inprimaturik ez daukan boto txartela (EC.3 eredukoa) erabili behar den kontzejuetan, aldarrikatutako hautagai kopurua administrazio batzarrerako hautatu beharreko kideen kopurua baino txikiagoa delako edo hautagairik aurkeztu ez delako, hautesle bakoitzak txartel horretan, gehienez ere, hautatu beharreko kargudunak ken bat adina izen idatzi ahal izango ditu. Aldarrikatutako hautagaietako bati nahiz hautesle izaera eduki eta hautaezintasun arrazoietakoren batean aurkitzen ez den beste edozein pertsonari eman ahal izango dio botoa.

e. Hautesleek, mahaia beraiek identifikatu eta hautesleen erroldan daudela egiaztatu ondoren, mahaiburuari emango diote boto txartela, dagokion gutun azalaren barruan, eta mahaiburuak sartuko du hautestontzian.

Mahaiko kideek botoa ematen duten hautesleen izenak markatuko dituzte horretarako eskuratuko zaien zerrendan.

Ezin da posta bidez botorik eman. Hala ere, dagokion udaleko idazkariaren aurrean botoa aldeztu aurretik emateko formula bat prestatu da, jarraibide hauen arabera:

1. Interesdunak udal erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria eskatu beharko dio kontzejuren udaleko idazkariari, botoa eman baino bost egun lehenagora arte. Idazkariak eskatzailearen nortasuna egiaztatuko du, eta, ondoren, interesdunari ziurtagiria emango dio, hauteskundeetako dokumentazioarekin eta gutun azalekin batera.

2. Kontzejuan hautagaitzaren bat aurkeztu bada, botoa eman beharko dio bete beharreko postu kopuru adina hautagai baino bat gutxiagori. Horretarako, adieraziko du hautagaietatik nortzuei eman behar dien botoa, haien laukitxoan gurutze bat jarrita.

Zuriz bozkatu nahi badu, paper horia erabili beharko du, zeinean ez baita hautagairik ageri.

3. Kontzejuan hautagaitzarik aurkezten ez bada, hautatuak izateko ezintasun arrazoirik ez duten hautesle guztiak izango dira hautagarri; horretarako, hautesle bakoitzak adin nagusiko auzotarren artean bere botoa jasoko dutenen izenak idatziko ditu paper horian, eta hautatuen kopurua ezingo da handiago izan bete beharreko postu kopurua baino bat gutxiago baino, bestela botoa baliogabea izango baita.

4. Paper botoa aukeratu eta botoa eman ondoren, hura ARABAKO KONTZEJUEKOTAKO ERREJIDOREEN ETA KIDEEN HAUTESKUNDEAK idatzita duen sepia koloreko gutunean sartu beharko da. Gutun azal hori, udal erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiriarekin batera, gutun azal zuri batean sartu beharko da, hartzailea hau izanik: ARABAKO KONTZEJUEKOTAKO ERREJIDOREEN ETA KIDEEN HAUTESKUNDEAK-HAUTESKUNDE MAHAIBURUA... (dagokion kontzejua adierazi), eta era berean, azken gutun azal hori boto emateko dagokion mahaia helbidea duen beste batean sartu beharko da.

5. Erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria ez da inolaz ere botoaren gutun azalean sartu behar, handik kanpo baizik, baina hauteskunde mahaiburuari zuzendutako gutun azalaren barruan.

6. Hauteskunde egunean udaletako idazkariek arestiko prozeduraren arabera jaso izanagatik bere esku dauzkan botoak helaraziko dizkie mahaiei.

#### **Laugarrena. Kontaketa**

A. Bozketa bukatutakoan, mahaiaik boto kontaktetari ekingo dio. Horretarako, mahaiburuak banan-banan aterako ditu gutun azalak hauteskontzitik, horiek ireki eta ozenki irakurriko ditu aukeratutako hautagaien izenak. Azkenean, boto txartelen kopurua eta zerrendan markatutako boto emaileen kopurua alderatuko dira.

Botoen kontaketa jendaurrean egingo da.

B. Botoen sailkapena.

Botoak hiru taldetan sailkatu daitezke:

a. Baliiodunak: zuri izan ez eta baliogabetzat eman ezin daitezkeenak.

b. Zuriak: horrelakotzat emango dira, hautagaien izenak inprimaturik ez dauzkaten boto txartelak erabiltzen dituzten kontzejuetan, hautesleek bertan izenik idatzi ez duten boto txartelak; eta, inprimaturik ez dituzten boto txartelak erabiltzen dituzten erakundeetan, boto txartelean agertzen diren hautagai izenen aurretik dauden laukitxoetako bat ere gurutzez markatuta ez daukaten boto txartelak.

Halaber, boto zuzitatzat emango da barruan boto txartelik ez daukan gutun azala.

c. Baliogabeak: holakotzat emango dira honako hauek:

– Ofizialak ez diren gutun azal edo txarteletan emandakoak.

– Gutun azalean sartuta ez dagoen txartel batean emandakoak.

– Barruan boto txartel bat baino gehiago dauzkan gutun azala, haiek guztiak hautagai beren aldekoak izan ezean. Horrelakoetan, baliiodun boto bakar bezala kontaktuko dira.

– Administrazio batzarrerako hautatu beharreko kideen kopurua (erregidorea eta kideak) ken bat gainditzen duen boto kopuru bat daukaten txartelak.

– Hautagaien izenak inprimaturik agertzen diren txarteletan emandako botoak, bertan agertzen diren izenak aldatu edo zirriboratu badira edo haien hurrenkera aldatu bada.

– Hautagarri ez diren pertsonen alde emandako botoa, baldin eta hautagaien izenak inprimaturik agertzen ez diren boto txartelak erabili badira. Kasu honetan, txartela berean agertzen diren beste boto balidoek ez dute galtzen baliotasuna.

C. Botoen kontaketa eginda, mahaiburuak galdetuko du kontaktetaren aurkako protestarik dagoen eta, bat ere ez badago, edo aurkezten direnak mahaiaik gehiengoz ebatzi eta gero, mahaiburuak haren emaitza jakinaraziko du, ahots goraz, ondoko hauek zehaztuz: hautesleen kopurua, boto emaileen kopurua, irakurritako txartelen kopurua, boto txartel baliogabeena, boto txartel baliiodunen kopurua (hauen barruan boto txartel zurien kopurua bereizita) eta hautagai bakoitzak lortutako boto kopurua.

D. Bertaratutako guztien aurrean suntsituko dira hauteskontzietatik ateratako boto txartelak, salbu eta boto baliogabetzat emandakoak edo erreklamazioen bat izan dutenak. Hauek guztiak aktari erantsiko zaizkio, mahaiko kideek izenpetu eta gero, eta harekin batera artxibatuko dira.

E. Aurreko pausoak bukatuta, kontaktetaren emaitza berehala argitaratuko da, honako hauek adieraziko dituen ziurtagiri baten bidez: mahaiairi dagokion hautesle kopurua, boto emaile kopurua, irakurritako txartelen kopurua, txartel baliiodunen, baliogabeen eta zurien kopurua,

eta hautagai bakoitzak lortutako botoen kopurua. Ziurtagiria, EC.6 ereduaren arabera egina, lokaleko sarreran jarriko da ikusgai.

F. Aurretik esandakoa eginda, mahaiburuak eta mahaikideek bozketako akta egingo dute. Akta horretan honako hauek adieraziko dira: mahaia osatu duten kideen izenak, hautesle kopurua, botoa eman duten hautesleen kopurua, irakurritako txartelen kopurua, txartel baliadunen, baliogabeen eta zurien kopurua, eta hautagai bakoitzak lortutako botoen kopurua. Laburki jasoko dira aurkeztutako erreklamazioak eta protestak, holakorik izanez gero, bai eta mahaia horien inguruan hartutako ebazpen arrazoituak ere, boto partikularrekin.

Aurreko guztiak jasotzen dituen akta, ezinbestean, mahaiko kide guztiek izenpetu beharko dute.

G. Bukatzeko, mahaia hauteskunde dokumentazioa prestatuko du, bi gutun azaletan banatuta.

Lehenengo gutun azalean boto emaileen zerrenda eta aurreko atalean adierazten den akta orokorraren originala sartu beharko dira, baita gorde diren boto txartelak ere.

Bigarren gutun azalean akta orokorraren kopia sartu beharko da.

H. Dokumentazioa prestatu eta gutun azaletan sartu ondoren, gutun azalak itxi eta kontzejua dagoen udalerrian Hauteskunde Batzordeak duen ordezkariari eskuratuko zaizkio, foru arauaren hamaseigarren artikuluan xedatutakoari jarraituz. Horretarako, mahaiko kideak ordezkari horren egoitza edo bizilekura joango dira. Ordezkariak entregatu zaion dokumentazioaren jaso-agiria egingo dio mahaiburuari, bertan zer egunetan eta ordutan eman zaion espresuki adieraziz.

I. Hauteskunde Batzordearen ordezkariari dokumentazioa eskuratzen zaion uneaz geroztik, hark izango du hura gordetzeko eta, ondoren, entregatzeko ardura. Bigarren gutun azala artxibatu eta gorde egin beharko du.

#### **Bosgarrena. Ordezko arauak**

Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Erregidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauan eta foru agindu honetan aurreikusita ez dauden guztietan, udal hauteskundeei buruzko araudia aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 25a

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**